

**Ebazpena: R 82/2023**  
**Espedientea: 45/2020**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 28a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

## **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea nork duen eskumena GESTI-URRUGNE SL zergapekoak egindako 2014ko eta 2015eko lan pertsonalaren gaineko atxikipeak ordainarazteko. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 45/2020 espediente-zenbakiarekin.

## **I. AURREKARIAK**

1.- GESTI-URRUGNE egoitza fiskala Gipuzkoan duen sozietate bat da, Hendaian egoitza duen URRUGNE SARL Frantziako bandera duen ontziaren horniduraren kudeaketa duena jardueratzat –esklusiboki beharrezko diren langileak emateari dagokionez–.

Langileek Galizian dute egoitza fiskala.

Aipatu langileen lan pertsonalaren gaineko atxikipenen diru-sarrerak GFari sartu zitzaizkion.

2.- ZAEAk zergapekoarekin lotutako ikuskapen-jarduketak abiatu zituen 2018ko martxoaren 3an, 2014ko eta 2015eko lan-atxikipenak egiaztatzeko.

Jarduketak 2018ko urriaren 18an amaitu ziren txosten batekin; bertan ondorioztatu zenez, egoitza fiskala lurralde erkidean zuten marinelen atxikipenak ZAEari sartu behar zitzaizkion.

3.- ZAEAk, 2018ko azaroaren 23an, aipatutako atxikipenak bidaltzeko eskaera jakinarazi zion GFari.

4.- GFAk, 2020ko abuztuaren 11n, uko egin zion bidalketa egiteari, argudiatuta ordainarazteko eskumena berea dela; horrez gain, 2014ko lehen hiru hiruhilekoen kasuan, preskripzioa ere argudiatu zuen.

5.- ZAEAk, 2020ko urriaren 9an, inhibititu zedila eskatu zion GFari; aldiz, eskumena berea zela berretsi zuen GFAk 2020ko azaroaren 5ean.

6.- ZAEAk, 2020ko abenduaren 4an, eskumen-gatazka planteatu zuen; 45/2020 espediente-zenbakia esleitu zitzaion, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

## **II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66. Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

2.1.- Ordainarazteko eskumenari buruz.

Jarraian oso-osorik jaso dugu 7/2022 Ebazpeneko oinarri juridikoa, honako gatazka honetan *mutatis mutandis* aplikagarria baita.

«1.- Itsasontzietan zerbitzuak ematen dituzten langileei ordainarazteko eskumena Arbitraje Batzorde honek 2018ko ekainaren 28ko R6/2018 Ebazpenean jada ebatzi zuen, 13/2015 Espedienteari buruzkoan, eta berariaz zuzenbidearen araberrakoa zela deklaratu zuen Auzitegi Gorenak, 1.319/2019 zenbakiko epaian, 2019ko urriaren 4koan (ECLI:ES:TS:2019:3144), ezetsi baitzuen ZAEAk ebazpen haren aurka jarritako errekurtsua.

2.- Bada, biek (Ebazpenak eta Epaiak) abiapuntutzat hartzen dute hutsune bat dagoela 10/2017 Legeak egindako erreformaren aurreko Ekonomia Itunaren erregulazioan, ontzietan beraien zerbitzuak eskaintzen dituzten langileen lan pertsonalaren atxikipenak PFEZaren kontura ordainarazteko eskumenari buruzkoan, eta hutsune hori interpreteak edo Zuzenbidea aplikatzen duenak nahitaez bete behar duela.

Horren arabera, ez da onargarria ZAEAREN uzia; izan ere, azken batean, hutsunerik ez dagoela uste baitu, eta hitzartu gabeko ordainarazpen-eskumen oro Estatuari dagokiola.

3.- Hutsune hori EIABk bete zuen lehenik, Auzitegi Gorenak gero, eta langilea adskribatuta dagoen lantokiaren irizpidera jo zuten. Itsasontzi batean egiten diren lanen kasuan, lantokia ontzia bera izango da, eta horrek berekin dakar obra hori lehorrean leku batera adskribatu beharra, ordainarazteko eskumena duen Administrazioa finkatzeko nabigazio-jarduerari lotutako tributuei dagokienez.

ELGAREN Hitzarmen Ereduaren 8.3 artikuluan xedatutakoa argudiatuta, egoitza itsasontzia amarratuta dagoen egoitza-portuan kokatuta zegoela ulertzen zela deklaratu zen.

Nolanahi ere, Espainiako Erresumaren eta Frantziako Errepublikaren arteko Hitzarmenaren 8.2. artikulua honako hau dio Madrilen 1995eko urriaren 10ean sinatu zen zergapetze bikoitza saihesteko eta errentaren eta ondarearen gaineko zergen inguruko zerga-ihesa eta -iruzurra prebenitzeko:

“8. artikulua. Itsas eta aire-nabigazioa. 2. Itsas nabigazio-enpresa baten benetako zuzendaritza-egoitza ontzi batean badago, ulertuko da ontzi horren egoitza-portua dagoen estatu kontratatzailean dagoela, eta, egoitza-porturik ez

badago, ontzia ustiatzen duen pertsona zein estatu kontratatzailetan bizi den hartuko da aintzat”.

4.- Eskuartean dugun kasuan, tripulazioak bere zerbitzuak eskaintzen dituzten itsasontzien egoitza-portua Frantzia kokatuta dago, bandera frantsesa duten itsasontziak baitira.

5.- GFaren iritziz, MIMZ andrea AASARL entitate ez-egoiliarraren EI bat da Espainiako lurraldean, eta ZAEAK ez du argudio hori konbentzitzeko moduan gezurtatu.

Espainiako Erresumak eta Frantziako Errepublikak 1995eko urriaren 10ean sinatutako Ezarpen Bikoitzeko Hitzarmenaren 5.5 artikulua hau ezartzen du: “... pertsona batek enpresa baten kontura jarduten duenean eta estatu kontratatzaile batean kontratuak enpresaren izenean burutzeko ahalmena ematen dioten ahalak eduki eta egikaritu ohi ditunean, ulertuko da enpresa horrek establezimendu iraunkor bat duela Estatu horretan”.

Horren arabera, eta kontrako frogak nahikorik ez dagoenez, onar daiteke Gipuzkoan kokatutako EI baten bidez jarduten duela entitate ez-egoiliarra Espainian, eta hari adskribatuta dagoela ez-egoiliarraren ontzietan zerbitzuak ematen dituen tripulazio egoiliar osoa.

6.- Horrela, bada, ez-egoiliarra Gipuzkoan daukan lantokira adskribatuta egongo lirake langileak. Ez dirudi ez-egoiliarraren lantokia Gipuzkoan kokatzeko orduan gehiegikeriarik egon denik, lantoki hori Galizian kokatu beharko litzatekeelako ideiarekin alderatuta; izan ere, ez-egoiliarraren jarduerarekiko lotura askoz hurbilago dago, kontuan hartzen bada itsasontziak Pasaian (Gipuzkoan) maiz porturatzen direla, geldialdien iraupena zein den

ikusita eta lurralde erkideko beste edozein porturekin inolako harremanik ez duela jakinda.

7.- Auzitegi Gorenaren 2019ko urriaren 4ko epaiak (ECLI:ES:TS:2019:3144) honako hau ezarri zuen: “Arbitraje Batzordeak lan integratzaile hori egiteko erabilitako argudioak ez dira soilik argudio guztiz logikoak, baizik eta, gure iritziz, gure ordenamendu juridikora, zerga-eta lan-ordenamendura ongien egokitzen direnak ere badira”.

Horrela, bada, Auzitegi Gorenak, eta baita EIABk ere, garrantzia eman zioten zerga- eta lan-araudiaren koordinazioari, zeina lortzea errazagoa baita hutsunea betez, ezinezkoa zelako ulertzea lantokia egoitza-portuan dagoela, kontuan hartuta lantokia Gipuzkoako lurraldean dagoen ez-egoiliarraren Establezimendu Iraunkorra dela».

2.2.- Administrazioen arteko kreditu publikorako eskubidearen preskripzioari buruz.

Aurreko apartatuak alferrikako egiten badu ere administrazioen arteko kreditu publikorako eskubidearen preskripzioari buruzko erabakirik hartu beharra, Arbitraje Batzordeak hainbat Ebazpen eman ditu dagoeneko aipatu auziaren inguruan (besteak beste, 43/2022, 40/2022, 41/2022 eta 174/2022 ebazpenak). Bada, ebazpenotan ebatzi denez, administrazioen arteko kreditu publikorako eskubidea izaera publikoko aurrekontu-eskubidea da, administrazioak zergadunaren aurrean duen zerga-eskubidez bestelakoa.

Administrazioen arteko kreditu publikoko eskubidearen preskripzio-epea dirua bidegabe sartzen den unean hasten da, eta ez da etengo bere burua zergapekoaren (hirugarren pertsona bat administrazioen arteko harremanean)

eskuduntzat jotzen duen administrazioak jarraitzen duen zerga-prozeduran egiten diren egintzengatik.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

### **ERABAKI DU**

1.- Ebaztea Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola eskumena GESTI-URRUGNE SL sozietateak kontratatutako marinelen 2014ko eta 2015eko lan pertsonalaren gaineko atxikipenak ordainarazteko.

2.- Jakinaraztea honako erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta GESTI-URRUGNE SL sozietateari.